

Historia literaturaren begietan

[*Pedrotxo*, 1995]

Juan Luis Zabala

Euskaldunon Egunkaria, 1996-02-29: 24.

Martin Ugaldere "Pedrotxo" eleberraren berrargitalpena aurkeztu zuen atzo Elkar argitaletxeak Donostian. Xabier Mendiguren Elizegi eta Joan Mari Irigoien Elkar argitaletxeko literatur arduradunak izan zituen lagun Martin Ugaldek bere lana aurkezteko. 1994an ikusi zuen argia lehen aldiz "Pedrotxo"k, Txomin Agirre saria irabazi eta gero.

Elkar argitaletxeak egindakoa bigarren argitalpena du Martin Ugaldere *Pedrotxo* eleberrak baina, lehendabizikoa oihartzun eta zabalkunde gutxikoa izan zenez, ia-ia berritatu jo daiteke gerraosteko Euskal Herriko giro pobre eta itogarria jasotzen duen liburu hau. Zabalkunde eta promozio hobea izateaz gain, beste abantaila garrantzitsu bat ere badu argitalpen berriak: Xabier Mendigurenen laguntzaz, lehendabiziko argitalpenak zituen hainbat akats zuzendu ditu egileak, koherentzia kronologikoari dagozkionak batzuk, akats tipografikoei dagozkienak bestetzuk... "Liburuak ondo merezia zuen argitalpen duinagoa", azaldu zuen Mendigurenek atzoko aurkezpenean.

Nahiz eta idazlea baino dozenaren bat urte gazteagoa izan, eleberriko pertsonaia nagusia, *Pedrotxo*, Ugalde bera bezala, Andoainen jaioa da; Ugaldek bezala, aita gerran galdu du *Pedrotxok* (nahiz eta, hala ere, aita nonbait bizirik duela ziur dagoen); Ugaldere aita bezala, *Pedrotxorena* ere Andoainen zinegotzi abertzalea izan zen... Arrasto autobiografiko ugari aurki daitekeen arren, ordea, eleberriko *Pedrotxo* ez da Martin Ugaldere *alter ego*-a, ezin daiteke inondik inora *Pedrotxo* eleberrari autobiografikotzat jo.

"*Pedrotxo* ez naiz ni", esan zuen Ugaldek atzoko aurkezpenean. Pertsonaia hau mamitzeko bere osaba *Pedrotxo* izan du oinarri nagusi idazleak. "Halako *aingerutasun* pertsonala zuen", gogoratu zuen Ugaldek bere osaba *Pedrotxo* zena. "Gizon hunkigarria zen. Beti barrez ari zen, beti alai zegoen, sekula ere ez haserre". Osabaren gomutan oinarrituriko *Pedrotxo* pertsonaiaren bidez, gerraosteko Euskal Herria nolakoa zen kontatu du idazleak eleberrari honetan.

Euskal Herriaren historia sentsibilitatearen bidetik emana

"Deskribapenak egiteko bi bide nagusi daude", esan zuen Ugaldek: "Bata objetiboa eta bestea sentsibilitatez egindakoa". Euskal Herriko historia modu objetiboan lehendik idatzia zuenez –1974an *Síntesis de la historia del País Vasco* liburua idatzi ostean sei liburukiko lan mardula ere idatzi zuen Euskal Herriaren historiaz–, Ugaldek "beste irudi

bat" eman nahi zuela pentsatu zuenean sortu zen *Pedrotxo* idazteko ideia. "Interpretazio literarioa" lantzeari ekin zion orduan egun Hondarribian bizi den idazle andoaindarrak.

Garai hartako Euskal Herria deskribitzeko, hainbat ezaugarri nagusi hartu zituen aintzakotzat idazleak bere lanari ekitean. Dударik gabe, gerraosteko Euskal Herriaren ezaugarri nagusietako bat pobretasuna zen. Horregatik Pedrotxok eleberrian egiten dituen bidaiak pobreak dira oso, eta baita sexuaren munduan dituen bizikizunak ere. Ahozko tradizioak garrantzi handia zuen, noski, gerraosteko Euskal Herrian, eta hori ere islatu du Ugaldek eleberrian. prestakuntza eskaseko irakasleak dituzte hurrek ikastetxeetan, zientzia gutxiko mundua da, eta erlijioak, aldiz, oso-oso indar handia du. "Bere sineskeria eta guzti, Eliza zen jakintsuena", ekarri zuen gogora Ugaldek. "Motore handia zen orduan herrietan".

Koordenada nagusi horietan oinarriturik osatu zuen Martin Ugaldek *Pedrotxo* eleberria, eta BBK-k eta Euskaltzaindiak eraturiko Txomin Agirre sariketa irabazi zuen lan harekin 1993an. BBK-k eta Euskaltzaindiak eman zuten argitara obra saritua 1994an, baina orain aiseago egingo du Ugalderen lan honek euskal irakurlearenganako bidea, Elkarrek plazaratutako berrargitalpenari esker.